

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Hasierako onespena ematea xehetasunezko azterlanari

Hasierako onespena eman zaio, Alkatearen 2020ko maiatzaren 26ko ebazpen bidez, xehetasunezko azterlan honi:

– Iñaki Mauleón Ridruejok eskatuta 2020ko apirilaren 6an hasitako eta Vart Arquitectos SLP enpresak idatzitako proiektua. Santikurutze Kanpezuko 1-978 lurzatiari (Arrabal kalea, 87) eragiten dio eta hau du xede: bertan dagoen eraikina eraitsi ondoren familia bakarreko etxea eraikitzeko baldintzak zehaztea.

Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 98.1 artikuluan xedaturikoarekin bat etorritik, espedientea jendaurrean jartzen da hogei egunez, iragarki hau ALHAOn eta Araban zabalkunde handienetakoa duen egunkari batean argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Jendaurrean dagoen bitartean, espedientea aztertu nahi duen ororen esku egongo da, egoki deritzen alegazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzen.

Santikurutze Kanpezu, 2020ko maiatzaren 26a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO